



Jon Mantzisor

Keinuak eta zeinuak



Xabier Gantzarain
@gantzarain

OIHARTZUNA. 2015

Bideoa eta buztinezko piezak. Neurri aldakorrak.

Ez dakit egia den, baina berdin zait: zurrumurrua iritsi zitzaidan, duela urte asko, artista batek proposamen bat aurkeztu zuela Gipuzkoako Artista Berrien lehiaketara, oraindik lehiaketa zenean: lehen saria jasotzen duen lanaren kopia perfektua egingo dut. Keinu simple horrekin dena hankaz gora botatzen zuen. Izan ere, lehen saria jasotzen duen lana zehatz-mehatz kopia-tuta sortzen den lanak ere lehen saria jaso beharko luke berez. Baina lehen saria jasoko balu, kopia horren beste kopia zehatz bat egin beharko luke, eta hark ere lehen saria jaso beharko luke, eta horrela bukle infinituan. Eta hori

gauzak asko konplikatzea zen. Epaimahaiak ez zuen onartu keinua eta bazter geratu zen.

Zurrumurrua egia izatera, proposamen hori aurkeztu zuena Jon Mantzisor Uria (Zumaia, 1973ko apirilaren 19a) izan zen. Eta badu zentzua bera izateak; aurkeztu izan dituen beste hainbat arte proposamen ere polemikoak izan ziren bere garaian, irri gaizto bat ateratzeko modukoak, jolastiak. Erakusketa aretoko argiak sabaitik kendu eta, itzalita, hormaren kontra erakutsi zituen Rekalde aretoan 2007an.

Bere keinuek zeinu izaera hartzen dute askotan, eta beste batzuetan zeinuak keinu bihurtzen ditu.

Argazkietako lan honetan, bideoan apaizak hitz egiten zuenean soinua erabat ezabatu zen: isiltasun digitala. Eta amaitzen zuenean elizak, aretoak egiten zuen oihartzuna eta jendearen zarata entzuten zen. Horrek eskuen keinuak agerian uzten zituen eta erakusketaren muntaketan pieza horiek egin zituen buztinez apaizaren esku-keinuak imitatuz.

Keinu jolastiekin zeinuak kolokan jarri zalea da. Komiki txundigarriak kaleratu zituen garai batean. Karidadeko Bentako musika konposatu zuen, Gora Japoneko partaide da. Egun, musika inprobisazioan dabil gehienbat. ■